

Gizarte eta Kooperatiba Ekonomiako Ikertzaileen Jardunaldien amaiera-ekitaldia ospatu du Mondragon Unibertsitateko Oñatiko campusak .

2012/06/28

Gizarte eta Kooperatiba Ekonomiako Ikertzaileen XIV. Jardunaldiaren amaiera-ekitaldiko hitzaldia ospatu zen, ostirala, ekainak 22, 11:00etan, Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza Fakultateko Oñatiko campusean. Aurreko bi egunean gizarte-ekonomiako adituak bildu ziren Donostian, eragiten dizkieten gaurkotasun-gairik garrantzitsuenei buruz hitz egiteko. XIV. Edizioko Jardunaldien goiburua honako hau izan da: “Kooperatiben nazioarteko urtea: gizarte-ekonomiaren erronkak eta proposamenak etengabe aldatzen ari den egungo munduan”.

Oñatiko campusean, 11:00etan, eskaini zen amaiera-hitzaldia, Mondragon Unibertsitateko MIKeko ikertzaile Eunate Elioren eskutik. Horrek “Kooperatiba, etorkizunerako balio duen eredu” gaiari buruz hitz egin zuen.

CIRIEC-España (Ekonomia publikoa, soziala eta kooperatiboa ikertzeko eta horien inguruan informatzeko nazioarteko zentroak) aldian-aldian antolatzen duen ekitaldia dira Gizarte eta Kooperatiba Ekonomiako Ikertzaileen XIV. Jardunaldiak. Horien helburua gizarte-ekonomiako aditu akademikoak biltzea da, eragiten dizkieten gaurkotasun-gairik garrantzitsuenei buruz hitz egiteko. Hitzordua Mondragon Unibertsitatearen eta beste bi euskal unibertsitateen (Deusturen eta EHUren) laguntza izan du.

Jardunaldiak sei tailer orokorretan antolatu dira, eta gaikako dozena bat tailerretan. Edizioz edizio, CIRIEC-España antolaturiko ikertzaileen jardunaldiak funtsezko topaketa-foro bihurtu dira, gizarte-ekonomiaren sektorean ikertzen, ikasten eta lan egiten duten guztientzat. XIV. Jardunaldietan, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako federaziorik garrantzitsuenen lankidetzak izan dugu, eta Eusko Jaurlaritzaren babesa.



CIRIEC Fakultateak eta gaur egungo langileak from enpresagintza on
Vimeo.